



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

JOXEMIEL BARANDIARAN HLHI

Ikastetxearen kodea:

012018

Data:

2023-04-25





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Ataungo Joxemiel Barandiaran HLHI, Ataun herrian kokatua dago. Herri hau, Gipuzkoako herririk luzeena da (14km) eta hiru auzoetan banatua dago. Ikastetxea, San Martin auzoan kokatua dago. Mendiz inguratua dago eta ez du herrian bertan industriarik. Ikasle asko, baserrietan bizi dira. Beraz, eskolara batzuk oinez, beste batzuk autobusez eta beste batzuk kotxez etortzen dira. Guztira 1. 700 biztanle ditu Ataunek, beraz, herri "txikia" dela esan dezakegu.

Oso herri euskalduna da; nahiz eta, azken urteetan, hala ere, euskararen erabilera zertxobait behera egin duen UEMAK egiten duen kale neurketaren arabera. Inguruko herrietatik, jendea etorri da bizitzera eta baita jatorri desberdinetako familia etorkinak ere.

Une honetan eskolan 175 ikasle inguru daude matrikulatuta. Oinarrian lerro bateko ikastetxea gara nahiz eta puntualki bi lerroko mailaren bat osatzen den. Hau honela izan arren, aurten lehen aldiz, talde berdinean bi maila izan ditugu (HH2-HH3).

Ikastetxea azkenaldian aldaketa-eraldaketa prozesu batean dago. Batetik, irakaslerian erretiroak ematen ari dira eta urte askotan bertan egondako irakasleak jubilatzen ari dira eta horien ordez jende berria etortzen ari da. Momentu honetan, gure Klaustroa 26 irakaslez osatua dago.

Bestetik, pedagogikoki ere eraldaketa prozesuan gaude, garai berriek paradigma berriak eskatzen dituztelako eta horrek ikas-irakas prozesuan eragin zuzena du. Egokitze prozesu honetan klaustro guztiaren inplikazioa eta parte hartzea behar-beharrezkoa da. Azken ikasturte hauetan Txanela eta Urtxintzarekin lan egitetik, EKI eta KIMU Lehen hezkuntzan eta HHn ikasleen interesetan oinarrituz gaiak lantzen pasa gara. EKI proiektuarekin lan egiteak ikasleen lan egiteko modua aldatzen ekarri du; ikasleek ez baitute liburu fisikorik, lizentzia digitalak baizik. Beraz, LH 4tik LH 6ra, ikasle bakoitzak bere Chrombook- a du. Horrez gain, gela guztietan pantaila digitala dago.

Bertako ikaslegoa orohar, maila sozioekonomiko ertaineko familiakoak dira. Familia hauetariko gehienak ikasleek etxean lan egiteko behar duten adina baliabide digitala badute. Hau honela ez den kasuetan, eskolak gailu digitalen bat uzteko aukera eskaintzen du, ikasle guztiak ikaskuntza prozesura hurbildu daitezkeela ziurtatuz.

Eskola orohar, baliabide digitalez (pantaila digital, Chrombook a...) ondo hornitua dagoela esan dezakegun arren, badaude alderdi honetan hobetzeko ditugun alderdiak, hala nola, mahaigaineko ordenagailu eta ordenagailu eramangarriak. Ditugunak motel doaz edota arazoak ematen baitzizkigute eta gure lanerako oinarritzeko tresna diren honetan, hau izango litzateke beharrik nagusia une honetan.

Legeak azpimarratzen du, halaber, kontuan hartu behar dela gure gizartean gertatzen ari den aldaketa digitala, hezkuntza-jarduerari nahitaez eragiten diona. Hau honela, konpetentzia digitalaren garapena funtsezkoa da bai irakasleak bai ikasleak egoera berrietan moldatu ahal izateko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan dituzten, eta irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetu ditzagun.

Aurretik aipatu bezala gure ikastetxeko plan digitalak, bere jarduketan artean, desberdintasunak konpentsatzeko, konektibitatea duten gailuak ikasle ahulenen eskura jarriko ditu, mailegu bidez, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta aukera berdinetan oinarritua bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko.

Ikastetxea erakundea den aldetik, ikaslegoa gailu teknologikoen erabilera arduratsuan hezte lana egingo dugu eta haur eta gazteak LH6 amaieran, irteera profileen zehazturiko gaitasunak bereganatzea izango du helburu. Hau lortzeko, ikasle zein irakasleen aurrezagutza eta beharrak kontuan izango ditugu, behar hauei, formazio bidez, behar adinako erantzuna eman ahal izateko.

Teknologia digitalak erabiltzeak herritartasun digitalari buruzko prestakuntza egokia eskatzen du, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatu ahal izateko; horretarako, alde batetik, teknologia guztiak, seguruak, osasungarriak eta modu arduratsuan erabili behar dira, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta besteen eskubide digitalak babestu behar dira. Ikasleen garapen integralerako funtsezko bi alderdi hauek ere ikastetxeko plan digitalaren helburu izango dira.

Plan honen bidez, honako hau lortu nahi da besteen artean:

- Berrikuntzaren eta ICTen erabilera dagokionez gure ikastetxearen egoera ebaluatzea -digitaliki eskumenak dituzten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparruak jasotzen dituen funtsezko elementuetan oinarriturik-, ondoren, ikastetxean eraldaketa-prozesu bat diseinatu ahal izateko.

- Ikastetxeko proiektu digitala gauzatzea, estrategia digitala, planifikatzeko funtsezko baliabidea izanik.

- Teknologia modu osasungarri eta arduratsuan erabiltzen hezte.

Digitalizazio plan honekin eta honetan, gure itsasargia den Zuzendaritza proiektuan txertatutako baloreak oinarri hartu nahi ditugu eta horiek lortzeko lanean jarraitu. Balore horiek gure ikastetxeko ikuspegia eta nortasuna zehazten dute. Aukera berdintasuna eta hezkidetzatza bultzatuko duen ikastetxea nahi dugu eta horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaigu Teknologia eta Digitalizazio munduan genero berdintasuna bultzatzea eta gure ikasle guztiei aukera berdinean eskaintzea. Horretarako, Digitalizazio eta Teknologia munduan murgildutako emakumezko ereduak eskaini eta erakustaraziko ditugu eskolan. Gainera, gure Zuzendaritza Proiektuarekin batera, oinarria den eskolako Steam proiektuan Digitalizazioa txertatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu Zientziaren zein Teknologiaren munduan gure ikasleen etorkizuneko ikasketa aukeretan parekidetasuna eman dadin.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

IKASTETXEAREN HORNIKUNTZA TEKNOLOGIKOA:

Beheko solairuan:

- *HH2 gela: mahai gaineko ordenagailua eta telebista
- *IRAKASLE gela: oso zaharkituak dauden 2 ordenagailu eramangarri eta 2 mahai gaineko ordenagailu
- *GURASO ELKARTEAREN TXOKOA: mahai gaineko ordenagailu bat eta ordenagailu mini eramangarri bat
- *ZERBITZARI gela: eskolako ordenagailu zerbitzaria eta sareko konexioen armairua
- *ZUZENDARITZA: mahai gaineko ordenagailu bat, 2 ordenagailu eramangarri eta Multiclass arbela

Lehenengo solairuan:

- *HH 3: mahai gaineko ordenagailu bat eta Multiclass arbela
- *HH4: mahai gaineko ordenagailu bat, proiektorea eta Multiclass arbela
- *HH5: mahai gaineko ordenagailua eta smart arbel digitala
- *LAGUNTZA GELA: mahai gaineko ordenagailu bat, ordenagailu eramangarri bat eta Multiclass arbela
- *ALE gela: ordenagailu eramangarri bat eta Multiclass arbela
- *INFORMATIKA GELA: 16 mahai gaineko ordenagailu eta proiektorea
- *INGELESEKO GELA (1): ordenagailu eramangarri bat eta Smart arbela
- *INGELESEKO GELA (2): mahai gaineko ordenagailu bat eta Smart arbela

Bigarren solairuan:

- * LIBURUTEGIA: Smart arbel digitala.
- * GELA BALIOANIZKOITZA: mahaigaineko ordenagailu bat eta Smart arbel digitala.
- * LH 6 gela: mahai gaineko ordenagailu bat, Smart arbel digitala, 19 Chromebook eta armairu digitala
- * LH 5 gela: mahai gaineko ordenagailu bat, Smart arbel digitala, 20 ordenagailu mini-eramangarri eta armairu digitala
- * LH 4 gela: mahai gaineko ordenagailu eramangarri bat, Smart arbel digitala, 25 ordenagailu mini eramangarri eta armairu digitala
- *LH 3: mahai gaineko ordenagailu bat, Smart arbel digitala eta 19 ordenagailu mini eramangarri eta armairu digitala
- *LH 2: mahai gaineko ordenagailu bat eta Smart arbel digitala
- *MUSIKA GELA: ordenagailu eramangarri bat

Irakasle bakoitzak Chromebook bat dauka.

KONEKTIBITATEA: 2019.urtean WIFI puntu eta sare guztia berritu zuten.

PLATAFORMAK: INIKA

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Digitalizazio plan honen bidez:

- Gure ikastetxeko IKTen inguruko errealitatea aztertzeke aukera izan dugu.
Azterketa hau honako hauek kontuan hartuta egin dira:
 - *Irakasleak eta zuzendaritza-taldeko kideak SELFIE FOR TEACHERS tresnarekin.
 - *Ikasleena berriz gelan egunerokotasuna kontuan hartu da.
 - *Ikasleen baliabideak aztertuz.
 - *Ikastetxearen azpiegitura, baliabideak eta egungo egoera aztertuz, SELFIE FOR SCHOOLS tresnaren bitartez.
- Ikastetxearen egoeraren analisiak (autoebaluazioa eta hausnarketa), ikastetxe bezala non gauden aztertzeran eraman gaitu.
- Alderdi horretan zerrendatutako beharrak hobetzera zuzenduta, etorkizunera begira, ekintza plan bat diseinatu eta planifikatu dugu. Ikastetxe bezala nora iritsi nahi dugun zehaztuz (helburuak)
 - Ikastetxea egoera batetik bestera eramango duen ekintza plan honetan, helburuak lortzeko ekintzak zehaztu dira.
 - Hau honela, proiektu honek, ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko garatuko diren jarduerak jasoko ditu, irakasle, irakasle, familia digitalki konpetenteak egiteko.
 - Zentroetako kultura digitala garatzeko, Hezkuntza komunitateko estamentu guztien inplikazioak duen garrantzia azpimarratzen da.
- Ikastetxea etengabe aldatzen ari den mundu digitalizatuago bateko partaidea den heinean, eskolak erantzun egin behar dio

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Digitalizazio plan honek, gure ikastetxearen helmuga izango diren helburuak zehaztuko ditu eta hauek lortzeko ekintzak diseinatuko ditu.

Proiektu Digitalaren diseinu eta inplementazio prozesuan, Zuzendaritza taldearen partehartzea ezinbestekoa izango da, eskola mailan duen ikuspegi globalagatik eta baita, baliabideak esleitzeko eta ardurak banatzeko duen eskumenengatik.

Hau honela, Digitalizazio plan honen ERAGILEAK hauek izango dira:

1. IKT ARDURADUNA: Honako funtzio hauek izango ditu:

- * Ikastetxeko informatika sarearen ardura
- * INIKA arduraduna
- * Ikastetxeko material informatikoaren ardura
- * Irakasleei formazioa antolatu eta emateko arduraduna
- * Irakasleei laguntza

2. IKT TALDEKIDEAK: IKT arduraduna eta beste 2/3 kidez osatua izango da.

Hezkuntza-komunitateko eragileen arteko informazioa eta komunikazioa antolatzea modu honetan egingo da:

- * Ikastetxeari buruzko informazioa jendeari, oro har: Zuzendaritzak, email edota web orri bidez
- * Klaustroari jakinaraztea: Zuzendaritzak, email edota web orri bidez.
- * Familiei zuzendutako informazioa: Zuzendaritza edota tutoreek, email , web orri edota telefono bidez.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxeko Proiektu Digitala ikastetxeko testuinguruan oinarritua dagoen eta gure errealitateari erantzuten dion dokumentu bat izaten saiatu gara. Hau honela, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan txertatua aurkituko da eta baita, noski, Ikastetxeko Urteko Planean ere.

Dokumentu hauek, halaberrez, bat etorriko dira dira eta guztiz osagarriak izango dira.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Aurrez aipatu bezala, SELFIE tresnarekin ikastetxearen analisia egin dugu Ikastetxeko Gaitasun Digitalaren (DigCompOrg) arabera, markoan agertzen diren 7 eremuak aztertuz.

Tresna hau auto hausnarketarako baliagarria izan zaigu eta honek ikastetxeko diagnosi bat eman digu. Bere bidez, non gauden kokatzen lagundu gaitu eta eskolako proiektu digitala nola garatu nahi dugunaren ildo eta jarraibideak zehazten lagundu digu.

Bertan, jasotako informazioa, jarraian azaltzen den AMIA taulan azaldu dugu.

AMIA analisisa

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
- Epe motzean proiektu bat baino gehiago gauzatu beharra eta beste zenbait proiektu eguneratu beharra.
-Gure ikastetxeko estrategia digitala (A1 – 2,9): *Mailaz maila orain arte zehazturiko IKT gaitasunen lanketa, ikasleen irteera profileko eskakizunekin eguneratua ez egotea. *Netiketa, Egile eskubideak, Cyberbullying, Eskubide eta betebeharrak... ez daude programazioetan txertatuak. *Tutoretza planean teknologia digitalen erabilera egokiaren lanketa eta gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak ez daude txertatuta
-Baliabide digital eta wifi konexioa: Eskolan: *Irakasle gelan, eta beste zenbait profesionalen geletan ordenagailu edota ordenagailu eramangarri oso zaharkituak: ondo dabilzan ordenagailuak izatea egokia/beharrezkoa izango litzateke. *Ikasleek ordenagailuak dituzten arren, horietako batzuk iadanik ez dabilta ondo. *Ikasle batzuen eramangarriak Wifi seinale gutxi edo konexio eskasa izaten dute batzuetan.
-Familiak INIKA pasahitzak ahaztuta ibili ohi dira.
-Sareko arriskuak: *Zalantza, benetan ikasleak ze puntutaraino, sareko arriskuez konziente diren eta sarean seguru, arduratsu eta errespetuz komunikatzen ote diren.(H1 ; H3) *Ikasleek justuko ezagutza duen seguratasun digitalen inguruan
-IKT ezagutzak: *Familia batzuetan IKT ezagutza maila baxua beren seme-alaben beharrei erantzuteko. Familien ezagutza beharrak aztertzea, IKT oinarri bat eskaintzeko. *Ikaskuntza irakaskuntzarako erabiltzen diren inguruen birtualak (erabilera eskasa) (E2 – 2.9)
- Ebaluazio atala, alderdi ezberdinetan: *Teknologia digitalak ikasleen trebetasunak ebaluatzeko erabiltzea (G1-2.5) *Teknologia digitalak erabiltzea feedback egokia emateko. (G3-2.6) *TEknologia digitalak ikasleek erabiltzea haien ikaskuntzaren gainean hausnar dezaken (G5-2.5) *Teknologia digitalak erabiltzea ikasleek haien ikaskideak erindako lanari buruzko oharak erabiltzea ez ditzaten (G5.2.2)

+ Lerro bat gehitu

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
- Ikastetxeko egunerokotasuneko lana eta sortzen diren bestelako eginbeharrak .
- Denbora eskasa: guztia egiteko, koordinatzeko, ikasitakoa praktikan jarri eta finkatzeko, baliabide digitalak sortzeko....
- Baliabide digital eta wifi konexioa: *Irakasle gelan, eta beste zenbait profesionalen geletan ordenagailu edota ordenagailu eramangarri oso zaharkituak: ondo dabilzan ordenagailuak izatea egokia/beharrezkoa izango litzateke. *Internetarako konexioa gailu batzuetan eta une batzuetan mantentzea da.
- Baliabide digitalen arriskuak: *Internetek gizartean dakartzan arriskuak: pribazitate eza, jazarpena... *Gailu digitalen erabilera neurri gabeko eta desegokia

+ Lerro bat gehitu

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
-Lanerako jarrera duen klaustro eta zuzendaritza. Ikasgelako programazioetan teknologia digitalarekin lotutako jarduerak daude. Maila bakoitzean landu beharreko IKT ezagutza eta trebetasunak zehaztuak daude. Ikasleek beren trebetasun digitalak modu egokian erabiltzen dituzte.
-IPD egiteko zenbait pauso eman dira: Selfie for School, AMIA, IPDa egiteko helburu proposamen bat.
-Irakasleriak une honetan duen kompetentzia digitala IPD martxan jartzeko nahikoa da. Dena den, beharren arabera formakuntzak aurrakusten dira.

-Gelak digitalki hornituta daude: ordenagailu, pantaila digitala daude. Erabili ditzazkegun gailu edo tabletak daude (C8 - 4.1) LH3tik LH6ra bitarteko ikasle bakoitzak bere gailu digitala du. Behar duten ikasleentzako gailu digitalak ditugu etxean lana egin dezaten uzteko.
-Internet fidagarria dugu.
- Babes kopiak maiz egiten dira eta dokumenturen bat galtzen bada berau lortu dezakegu.
-Ikasleek behar dutenean gailu digitalekin laguntza teknikoak jasotzen dute, baina batzuetan ez da nahikoa ordenagailua edota konexioa arazo direnean.
-Eskolako dokumentazio guztia digitalki dago. Dokumentazioa sarean dugu eskuragarri. Irakasleok maila pertsonalean drive ere erabiltzen du materiala gordetzeko, konpartitzeko...
-Tresna digital batzuk erabiltzen ikasi dugu: Inika, Canva, Genially....
- Teknologia digitalak erabiltzen ditugu ikastetxearekin lotutako komunikazioan (E.4 - 4.3), baita beste erakundeekin lana egiteko ere (B.3 - 4): Eskolak informazioa zabaltzeko erabiltzen dituen bide nagusiak emaila eta telefonoa dira. Bilerak presentzialez gain, on line bilerak ere gauzatzen dira beharrak horrela eskatzen duenean. Honekin batera notak ere INIKA plataformaren bidez ikusi ditzazkete familiek. Orohar familiak gustora daude ditugun informazio bide hauekin. Eskolak, web orria du eta bertara astero irratia igozten da eta hiruhilabetean behin gutxienez, gela bakoitzak zerbait zintzilikatzen du. Honekin batera, ikasturtean zehar 2 unetan, abenduan eta ekainean, aldizkari bat egiten da ikasleek gelako lanak abiapuntu izanik. Aldizkaria ere web orrian zintzilikatzen da eta zenbait ale ere inprimatzen dira ikasleek geletan izan dezaten eta herri mailan banatzeko ere. Urriatik ekainera bitarte, ostiraletan ikasleek ordu beteko irratia egiten dute eta zuzenean emititzen da.
-Irakasleok inguruko ikastetxeekin harremana dugu eta lankidetzan ari gara, zenbait saio bateratuetan koordinatzen, elkarlanean zenbait proiektu burutzeko.
-Berritzegune eta eskolako proiektuetan parte hartzen dugu.
-Ikastetxean egiten diren zenbait gauza ikas komunitateari zabaltzen zaio. (familiei) Ikasleei gailu digitalak modu seguruan ibiltzeko jarraibideak ematen zaizkie. Ikasleekin IKT dekalogo bat lantzen da eta familiei ere bidaltzen zaie. LH5 mailan sare sozialak errikuaz kontzientziatzeko prestakuntza bat jasotzen dute.
-Kluppy (mekanografia) LH4 mailan lantzen hasten dira. Etxean zein eskolan egin dezakete.
-Baliabide digitalak sortzen dira.
-Irakasleok Hezkuntzako on line baliabideak bilatzen ditu interneten (E1-4).
-Gelan aniztasunari erantzuteko egokiak diren zenbait baliabide digital erabiltzen dira. Curriculumean atzera geratzen diren ikasleentzat zenbait baliabide digital erabiltzen dira. Gaitasun altuak dituzten ikasleentzat zenbait baliabide digital erabiltzen dira.
-3. zikloko ikasleek digitalki egiten dute lana eta drive erabiltzen dute lanak gordetzeko eta lan taldean lana egiteko erabiltzen da drive.
-Interdisziplinartekoa lantzeko erabiltzen dira baliabide digitalak.
-Ikastetxeak INIKA tresna erabiltzen du GITak jaso, notak sartu eta familiek boletinak ikusteko. Ikasleek ikasturte amaierako txostenak emailez, digitalki bidaltzen dira.
-Irakasle taldeak teknologia digitalak erabiltzen dituzte ebaluazioa jasotzeko.
-Irakasleek IKT formazio beharren inguruan hausnartzen da.

+ Lerro bat gehitu

Aukerak (kanpo-faktoreak)
- Zuzendaritza proiektuarekin bat datorren IPD bat gauzatzea.
-Beste proiektuak (hezkuntza proiektu, tutoretza plana, programazioak....) eguneratzean IPD ere txertatzea.
-Ziklo bakoitzeko erreferenteak, ziklo horretan IPDean zehazturikoa inplementatzen lagun dezake ikasturte hasieratik.
-Jasotako emaitzak klaustroarekin konpartitu eta helburuak zehazteko aukera bat da.
-IPDa egin eta irakasleok berria honetaz informatu.
-Klaustroari IKT beharren inguruan galdetu eta beharrei erantzuna emanez irakasleok eskola barruko formazio bidez prestatu bai maila pertsonalean baita ikasleek irteera profila lortze aldera ere.

<p>-Tecnologia berrien erabileraren inguruan irakaslegoaren iritzia galdetu. Mailaz maila orain arte zehazturiko IKT jarduerak, ikasleen irteera profilarikin bat datozen kontrastatu eta behar diren aldaketak gauzatu.</p>
<p>- Beharrezkoa balitz, aurrerago ikasleen irteera profilarik loturiko jarduera biltegi bat burutzen joan. Baliabide mugatuak dituzten ikasleei, etxean lana egiteko gailu digitala uztea (eta wifi sarbidea ziurtatzea / eskaintzen saiatzea udalaren laguntza bidez), orain arteko moduan bezala beren beharrei erantzuten jarraitzea...</p>
<p>-Ze tresna digital gehiagoren ezagutza eta erabilera indartu nahi den aztertu eta burutu. Google for school, blogak... Sumbalaz bat eratzeko</p>
<p>-Ikastetxean egiten dena gehiago zabaltzeko egoerak sustatu Familia bakoitzari email korporatiboa sortu, emailarekin izaten ditugun arazoak ekiditeko Ikasleak kontzientziatu sarean segurtasun eta errespetuz ibil daitezen, formakuntza saioak antolatu eta gauzatu Aztertu LH6 mailan bakarrik egin LH5en burutzen hasi edota bietan egin?</p>
<p>- Programazioetan txertatzen Joan maila bakoitzak landu eta garatu behar duena. Informazio fidagarria hautatzen erakustea txertatu.</p>
<p>-Kluppy burutzen jarraitu.</p>
<p>-Netiketa, Egile eskubideak, Ciberbullying, Eskubide eta betebeharrak... bezalakoak ze mailetan lantzearen egokitasunaren inguruan hausnartu eta programazioetan txertatu ikasleekin lantzeko.</p>
<p>-Irakasle eta Familiak formatu, sare sozialen inguruko arrisku eta segurtasun ardura hauen inguruan. Baita irakaslegoa ere.</p>
<p>-Programazio guztietan baliabide digitalen aipamena txertatu.</p>
<p>-Irakasleak formazioa behar du baliabideak bilatu, sortu eta eraldatzeko Edo aniztasunari erantzuteko baliabide digitalen inguruan</p>
<p>-Familiei baliabide digital zerrenda egoki bat eskaini</p>
<p>-Ikasturte amaieran hurrengo urtera begira irakasleen IKT beharrei erantzuten dion formazioa hautatu, eskola orduetan burutzeko. Familiekin IKT ezagutzak zabaltzeko formakuntzak proposatu.</p>

+ Lerro bat gehitu

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- Irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eduki eta baliabide digitalak sortzen eta bilatzen dituzte eta online plataformak eta ingurune birtualak erabiltzen dituzte gelako aniztasunari erantzuteko, baita Curriculum berriak eskatzen duen kompetentzia digitala garatzeko eta lantzeko.
- Hezkuntza digitala bermatzeko jarraibideak, dekalogoak eta erabilera segurua sustatzeko ikaskuntzak ikas komunitatera zabaltzen dira.
- Hezkuntza komunitatean komunikazio-bide eraginkorrak daude.
- Gelak digitalki hornituta daude internet fidagarri eta babes kopiekin.
- Irakasleek kompetentzia digital nahikoa azaltzen dute.
- Maila bakoitzeko IKT trebetasunak zehaztuta daude.
- Inikaren eta Google Driven erabilera egiten du irakasleak eta dokumentuak eskolako sarean digitalki gordeta ditugu.
- Hezkuntza komunitatean sortzen diren beharrei erantzuteko etengabeko formakuntzak eskaintzen dira.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- Egungo errealitatera egokitutako dokumentuak eta proiektuak izango ditugu eskolan: ikasleen irteera profila, mailaz mailako IKT trebetasunak, ikas-egoerak, tutoretza-plana...
- Berrikuntza teknopedagogikoa ikastaroak ematen duen aukera aprobetxatu irakasleek lanak lizentziatzen ikasteko eta egiteko ohitura hartzeko.
- Ikastetxeko Digitalizazio Batzordearen indarrak baliatuz, teknologiaren erabileraren inguruko gogoeta uneak eta tresnak finkatu.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

- Klaustroaren jarrera baikorra mandendu eta indartzea, mehatxu ezberdinei aurre egiteko.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

- Beharren araberako formazio digitala eskaini eskola komunitatean: irakasle, ikasle, guraso...
- Internetak dituen arriskuak saihesteko erabilera egoki eta zuzenetan hezi ikasgai guztietan, eta tutoretza orduetan.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
L.G. 1. Digitalizazio batzordea sortzea, arduradunak eta zereginak ondo zehatzuz, digitalizazio planari jarraipena eman, ebaluatu eta hobekuntza proposamenak egiteko.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	25-/6/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	Bai

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio batzordea antolatzea.	Irakaslegoa	Zuzendaritza taldea	2023-12-22	Egina
Digitalizazio prozesuak duen eragina aztertzeke tresnak diseinatzen hastea.	Digitalizazio batzordea	Digitalizazio batzordea	2024-06-21	Egina
Digitalizazio prozesuak duen eragina aztertzeke tresnak erabiltzea.	Tresnak eta irakaslegoa	Irakaslegoa	2025-06-20	Egina
Hobetzeko proposamenak egitea, aztertzea eta inplementatzea.	Digitalizazio batzordea eta irakaslegoa	Digitalizazio batzordea	2024-06-21	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
II. 1. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, mailaka landu beharreko eduki digitalak zehaztea, programazioetan txertatuz, ikasle guztien kompetentzia digitalaren garapena ziurtatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2025/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2025/06/20

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Mailaz maila jarduera digitalak zehaztea.	Zikloka irakaslekoa	Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Egina
Maikaz maila zehazturiko jarduera digitalak burutzea	Irakasle taldea	Digitalizazio batzordea	2025/06/20	Egina
LH4 mailatik aurrera KLUPPY jarduerak burutzea.	Ordenagailuko programa, irakasleko eta ikasleko	Tutoreak	2024/06/21	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

GP Garapen profesionala

Helburua		
Ikastetxeko irakasleen gaitasun digitala garatzea, beren beharrak identifikatu eta erantzuna emanez, ikaskuntza irakaskuntza praktikak hobetzeko eta irakaskuntzarako behar den gaitasun maila bermatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2025/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2025/06/21

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Selfie for teachers tresna erabiltzea irakasle taldearen kompetentzia digitala neurtzeko.	Selfie for Teacher,s	Digitalizazio batzordea	2025/04/30	Egina
Ikastetxeko irakasleen kompetentzia digitalaren "profila" zehaztea	Selfie for Teacher,s en emaitzak	Digitalizazio batzordea	2025/04/30	Egina
Irakasleen IKT formazio beharren inguruan hausnartzea.	Galdetegia	Zuzendaritza taldea	2024/06/21	Egina
Ikasturte amaieran hurrengo urtera begira formazio plana antolatzea	Galdetegiaren emaitzak	Zuzendaritza taldea eta Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Egina
Prestakuntza saioak burutu dira	Prestakuntza saioak	Zuzendaritza taldea eta Digitalizazio batzordea	2024/06/21	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Programazio didaktikoetan kompetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehaztea, ikasleek lortzeko ikastetxeak ezarri duen mailaz mailako garapena erreferentzia izanik, ikasle bakoitzak egiten duen aurrerapena neurtzeko.		
Deskriptorea		Epea
EJ 3.1 Ikaskuntzaren analisia estrategikotzat hartzen da		2025-06-20
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2025/06/20
	Bai/Ez	2025/06/20

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Mailaz maila eta arloz-arlo, ikasleek lortu beharreko kompetentzia digitalaren garapen maila zehaztea.	Irteera profila, aurrez eskolan mailaz maila egindako dokumentua...	Zikloka irakasle taldeak	2025/06/20	Egina
Curriculum proiektuan eta programazioetan, kompetentzia digitalari lotutako jarduerak, baliabideak eta ebaluatzeko irizpideak jasotzea.	KIMU eta EKI proiektuak, bertako gidak, IHP...	Zikloka irakasle taldeak	2025/06/20	Egina
Ikasleen trebetasun digitala ebaluatzea	Mailaz mailako ebaluazio irizpideak	Mailako irakaslea-tutorea	2025/06/20	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EC Edukiak eta curriculumua

Helburua		
Baliabide banku bat sortzea, irakaslego guztien eskura jarritz, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan baliabide ezberdinak hornitzen joan, partekatuz, erabili eta ikasleen behar ezberdinei erantzuteko.		
Deskriptorea	Epea	
EC 1.2 Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorrean erabiltzen dira	2025/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2025/06/21

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasle bakoitzak ikasleentzako egindako baliabideak jaso eta partekatzea.	Gelarako sortu edota erabilitako materiala: fitxa, power point, mapa kontzeptual....	Irakasle taldea	2024/06/21	Egina
Sarean, baliabide banku bat sortzea	Baliabideak Irakasle taldea eta digitalizazio batzordea.	Digitalizazio batzordea eta irakasle taldea.	2024/06/21	Egina
Irakasle berriei baliabide banku horren berri ematea, berari hornitu eta erabiltze aldera.	Irakasle berrien harrera plana.	Zuzendaritza taldea	2025/06/20	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua		
Ikastetxeko web orria erabiltzen jarraitzea, ikastetxean burutzen diren ekintzen berri emateko.		
Deskriptorea	Epea	
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2024/06/21

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Astero irratsaioa web orrira igo.	Web orria. Irratsaioak.	Irrati arduraduna	2024/06/21	Egina
Hiruhilabetean behin gutxienez, talde bakoitzak berriren bat argitaratzea.	Web orria Burututako ekintzak	Tutore/irakasleoa	2024/06/21	Egina
Ikasturtean zehar 2 unetan, ikasleen geleko lanekin argitaratutako Eguzki Berri aldizkaria web orrian argitaratzea.	Gelan egindako lanak Web orria	Eguzki Berri arduradunak	2024/06/21	Egina
Eskolako dokumentazio garrantzitsua web orrian jasotzea.	Eskolako dokumentazioa Web orria	Zuzendaritza taldea	2024/06/21	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

AZ Azpiegiturak

Helburua
Irakasle eta ikasle guztien teknologiarako sarbidea bermatzea.

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.5 Ezberdintasun eta inklusio digitalarekin erlazionaturiko arriskuei heltzen zaie	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
	Bai/Ez	2024/06/21

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Beharra duten ikasleak gailu digitalez hornitzea.	Gailu digitalak	Zuzendaritza taldea	2024/06/21	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua		
Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila
LG	L.G. 1. Digitalizazio batzordea sortzea, arduradunak eta zereginak ondo zehaztuz, digitalizazio planari jarraipena eman, ebaluatu eta hobekuntza proposamenak egiteko.	2025/06/20	Urtero, aurrikusitako ekintzak burutu diren edo ez baloratuz.	Zuzendaritza taldea Digitalizazio batzordea	
LG	L.G.2. Ikastetxeko oinarrizko dokumentazioan estrategia digitalaren ildo nagusiak inplementatzea, garatu beharreko gaitasun digitalak ondo zehaztuz, ikasle guztien konpetentzia digitalaren garapen egokia lortzen dela ziurtatzeko.	2025/06/20	Urtero, aurrikusitako ekintzak burutu diren edo ez baloratuz.	Digitalizazio batzordeak	

LG	Irakasle berrientzako harrera plan bat zehaztea, teknologia digitalen erabileran eta horien inplementazio didaktikoaren inguruan eskola mailan jasota dagoenaren ezagutza izan dezan.	2024/06/21	Aurrikusitako harrera plana burutu diren edo ez baloratuz.	Zuzendaritza taldea	
II	II. 1. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, mailaka landu beharreko eduki digitalak zehaztea, programazioetan txertatuz, ikasle guztien konpetentzia digitalaren garapena ziurtatzeko.	2025/06/20	Eduki digitalak zehaztu diren edo ez baloratuz	Digitalizazio batzordeak	
II	II. 2. Teknologia digitalak seguru eta arduraz erabiltzea, ikasteko eta gizartean parte hartzeko.	2024/06/21	Dekalogoia zabaldu eta formakuntzak eskaini diren baloratuz.	Digitalizazio batzordeak	

GP	Ikastetxeko irakasleen gaitasun digitala garatzea, beren beharrak identifikatu eta erantzuna emanez, ikaskuntza irakaskuntza praktikak hobetzeko eta irakaskuntzarako behar den gaitasun maila bermatzeko.	2025/06/21	"Selfie for teacher.s", bestelako galdetegi....bidez.	Digitalizazio batzordeak	
EJ	Programazio didaktikoetan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak zehaztea, ikasleek lortzeko ikastetxeak ezarri duen mailaz mailako garapena erreferentzia izanik, ikasle bakoitzak egiten duen aurrerapena neurtzeko.	2025/06/20	Programazioetan txertaturiko baliabideak baloratuz eta ikasleen trebetasun digitala gelako jarduera ezberdinen bidez ebaluatuz.	Digitalizazio batzordea Irakaslekoa	
EJ	Inika aplikazioa erabiltzea ikasleen ebaluazioa jaso eta familiek boletinak ikusteko	2023/12/20	Ekintzak burutu diren ebaluatuz	Digitalizazio batzordea	

EC	Baliabide banku bat sortzea, irakaslego guztien eskura jarritz, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan baliabide ezberdinak hornitzen joan, partekatu, erabili eta ikasleen behar ezberdinei erantzuteko.	2025/06/20	Zehazturiko ekintzak burutu diren ala ez ebaluatuz	Digitalizazio batzordeak	
EC	Eskolako programazioak osatzea aniztasunari erantzuten dioten bestelako baliabideekin.	2025/06/20	Aniztasunari erantzuten dioten baliabideak txertatu diren ala ez ebaluatuz	Digitalizazio batzordeak	
EN	Ikastetxeko web orria erabiltzen jarraitzea, ikastetxean burutzen diren ekintzen berri emateko.	2024/06/21	Zehazturiko ekintzak burutu diren ebaluatuz.	Zuzendaritza taldea	
EN	Digitalki beste ikastetxe batzuetan egiten denaren inguruan informazioa izateko saretzea.	2025/06/20	Saretze bilerak egin diren ebaluatuz	Zuzendaritza taldea	

AZ	Irakasle eta ikasle guztien teknologiarako sarbidea bermatzea.	2024/06/21	Beharra dutenei gailu digitalak eskura jarri zaizkien ebaluatuz	Zuzendaritza taldea.	
IB					